

AGENDA PUBLIKO BERRIAREN TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZAREN
ERRONKEN ANALISIA

2020KO URRIA

**AGENDA POLITIKOAK
HARREMAN-SARE KONPLEXUEN
GAINEAN ERAIKITZEN DIRA, ETA
HORIETAN ERAGILE POLITIKO,
SOZIAL ETA EKONOMIKOEK
HARTZEN DUTE PARTE. AGENDAK
EZAGUTZEA EZINBESTEKOA DA
IDEIEN ETA PROPOSAMENEN
BIDEZ HAIETAN ERAGIN AHAL
IZATEKO.**

Txosten honetan XII. Legealdian biziko den testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoaren analisia jaso dugu, bai eta Eusko Jaurlaritzak parez-pare izango dituen erronkena ere. Egiteko horiek, jakina, COVID-19aren pandemia eta agenda publiko berri eta eraldatzaile baten premia kontuan hartuta burutu beharko du gobernauak, eta guk ere beren lekua eman diegu gure azterketan.

Txosten hau **Eva Silván**-en zuzendaritzapean egin da, eta **Ainara Villañoren** parte hartzeaz gain, **Ion Ansa, Eva Arrilucea, Iñigo Beristain, Braulio Gómez, Rosa Martínez eta Zigor Urkiagaren** iruzkin eta ekarpenek ere aberastu dute. Txostenean legokeen edozein akats edo omisioren ardura txostenaren egileak hartzen du bere gain oso-osorik.

Análisis y Estudios

SILVÁN&MIRACLE

ESTRATEGIAS DE ASUNTOS PÚBLICOS

01	SARRERA.....	4
----	--------------	---

02	12. HAUTESKUNDEAK, LEGE BILTZARREKO ORDEZKARITZA ETA ABSTENTZIOA.....	6
----	--	---

03	EUSKO JAURLARITZAREN ERRONKAK	10
----	--	----

04	EUSKO JAURLARITZAREN EGITURA ETA HITZEMANDAKO EKIMENAK.....	21
----	---	----

01

SARRERA

2020KO OTSAILAREN 10EAN, IÑIGO URKULLU LEHENDAKARIAK EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK AURRERATUKO ZITUZTELA IRAGARRI ZUEN.

2020ko otsailaren 10ean, Iñigo Urkullu lehendakariak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak aurreratuko zituztela iragarri zuen.

Otsailaren 10ean komunikabideen aurrean egindako agerraldian, Lehendakariak azaldu zuen euskal gizartean nabaritzen zen hauteskundeurreko giroa ikusita, eta Jaurlaritzak prestatuta zituen 29 lege proposamenek aurrera egiteko oniritzirik jaso ez zutela kontuan hartuta, hauteskundeak bost hilabete aurreratu eta, hala, XI. legealdia laburtzea erabaki zutela.

Egun hartatik irailaren 5ean Iñigo Urkullu berriro ere Lehendakari inbestitu zuten arte 7 hilabete igaro ziren. Denbora tarte horretan, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, osasun larrialdi egoera ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gero, martxoaren 14an, alarma-egoera ezarri zuen Pedro Sánchezen gobernuak. Hori guztia dela eta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak bertan behera utzi eta data berri bat ezarri zen: uztailaren 12a. Pandemiak izandako eragin handiena, ordea, pairatzen ari garen osasun-, ekonomia- eta-gizarte-krisi sakona da, eta horri aurre egitea izango da, hain zuzen ere, EAJ eta PSE-EEk koalizioan eratu duten gobernu berriaren erronka handiena.

COVID-19aren pandemiak, bere eragin ekonomiko eta sozialak direla eta, ez du parekorik historian, ez intentsitateari ez hedapenari dagokionez. Orain arte ez zen sekula guztia batera horren denbora luzez geratu. Nahiz eta oraindik ez dakigun etorkizun hurbilean pandemia honen eragin sozial, politiko eta ekonomikoak zenbaterainokoak izango diren, argi geratu dena da pandemiak larrialdi ezezagun honi erantzutera derrigortu dituela administrazio publiko guztiak, eskura dituzten ahalegin eta baliabide guztiak birusaren hedapenari eustera eta itxialdiak eta mugikortasun-mugapenak ekonomian izandako ondorioak gutxitzera bideratuz.



Txosten honetan, pandemiaren berehalako eraginetatik haratago joateko ahaleaginean, uztailaren 12ko hauteskunderen emaitzak, parte-hartzearen bilakaera eta Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdien emaitzak aztertuko ditugu alde batetik, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak parez pare dituen erronkak azalduko ditugu, testuinguruak (pandemiak eta Europatik egitura-erreformak egiteko jaso ditugun funtsek) erabat baldintzatuta jaioko direla bazter utzi gabe. Txostenaren bukaeran koalizio-gobernuaren deskribapena jaso dugu, bai eta Sail bakoitzak bere eskumenen arabera eta EAJ eta PSE-EEren arteko hitzarmenarekin bat hartu dituen konpromisoak ere.

Hala, txosten honek zenbait xede ditu: EAEko XII. legegaldiaren testuinguru politiko, ekonomiko eta sozialaren analisisa egitea; COVID-19aren pandemia kontrolatzeko beharra nagusi den testuinguru honetan Eusko Jaurlaritza berriak izango dituen erronkak aztertzea; Next Generation EU izeneko Europar Batasuneko hitzarmenak markatuta eratuko den agenda politiko berria aztertzea, eta EAJ-PSE-EEren arteko gobernu-hitzarmenean sailburuek hartutako konpromisoak arretaz begiratzea.


02



12. HAUTESKUNDEAK, LEGBILTZARREKO ORDEZKARITZA ETA ABSTENTZIOA

EAJk irabazi zituen uztailaren 12ko hauteskundeak bozka kopuru-handiena jasota (31 eserleku). Bigarren alderdi bozkatuena EH Bildu izan zen (21 eserleku), 10 ordezkari aldearekin. PSE-EEK 10 eserleku lortu zituen, eta Elkarrekin Podemosek eta PP-Ciudadanos koalizioak, 6na ordezkari. VOX alderdiak legebiltzarkide bat zuen.

2020



31
EAJ-PNV

21
EH Bildu

10
PSE-EE/PSOE

6
ELKARREKIN
PODEMOS-IU


6
PP+Cs

6
VOX

Ez zen ezustekorik egon EAJk eta PSE-EEK lortutako emaitzei dagokienean. Inkesta gehienek aurreikusitakoa gertatu zen: koalizioko bi alderdiek aise gaingitu zuten gehiengo absolutua, nahiz eta EAJk eta PSEek bi-biek botoak galdu. Urkulluren alderdiak 2016an baino 3 eserleku gehiago eskuratu zituen, eta Mendiarenek ere beren ordezkariak hobetzea lortu zuten, legebiltzarkide bat gehiago lortuta. Hala ere, bozka kopuru absolutuari begiratuz gero, ikusiko dugu bi alderdiek 2016an baino boto gutxiago jaso zituztela. Galera askoz ere handiagoa izan zen jeltzaleen kasuan: Urkulluren alderdikoek 48.000 boto baino gehiago galdu zituzten; Mendiarenekoek, aldiz, 4.000 eta koska.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako txostena.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako boto kopuruak



Iturria: guk geuk sortua Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuetatik abiatuta.

Emaitza horietatik inoiz izan den Eusko Legebiltzar abertzaleena osatu da. Batuta, EH Bildu eta EAJren ordezkariak ganberako eserlekuen ia %70 hartzen dute. EH Bildu izan zen emaitzarik onenak lortu zituen alderdia, bai ikuspuntu kuantitatibotik bai kualitatibotik. Izan eren, parte-hartze baxua alderdi abertzalearentzat kaltegarria izango zela uste zen arren, 2016an baino 24.400 boto gehiago lortu zituzten, eta horri esker, baita 3 ordezkari gehiago ere.

Elkarrekin Podemos eta PP+Cs koalizioak izan ziren kaltetuenak. 2016an, PPK eta Cs-ek bakoitzak bere aldetik atera zituzten botoak elkartzen baditugu, ikusiko dugu 129.248 hiritarren babesa jaso zutela; 2020an, ordea, koalizioan aurkeztuta, 60.650 boto baino ez zituzten eskuratu. Bestalde, Elkarrekin Podemosek Legebiltzarrean zuen ordezkariaren ia erdia eta 85.221 boto galdu zituen. Alderdiaren barruko kohesio falta eta primario-prozesu estu-estua komunikabideen bidez airatu izanak eragin negatiboa izan zuen alderdi morearen emaitzetan.

Abstentzio-tasa altuari esker, historian lehenengoz, Eusko Legebiltzarrean sartzea lortu zuen VOX alderdi ultraeskuindarrak. Arabatik lortu zuten ordezkaria, eta 4.723 boto baino ez zituzten behar izan horretarako. Ikustear dago zer nolako oihartzuna izango duen alderdiak, bai eta bere planteamenduek, besteak beste, hizkuntza-politikei, zenbait euskal instituzioren zilegitasunari eta Estatutuari loturikoek, agenda politikoan nolabaiteko eragina duten ere.



Eusko Legebiltzarraren historiako abstentzio altuena

1980an Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak egin zirenetik, 2020koa izan da sekula ezagutu den parte-hartzerik baxuena. Begi bistakoa zen arren uztailaren 12ko hauteskundeak testuinguru konplexu batean egingo zirela —uda betean eta pandemiaren itzalpean—, inkesta batek ere ez zuen parte-hartzean gertatu zen beherakada itzela aurreikusi. Institutuzioetatik saiatu ziren hiritarrak bozkatzera animatuko zituen konfiantza-giroa sortzen eta bozka-lekuetan osasun-neurriak zorrotz betetzen, baina, hala ere, botoa emateko eskubidea zutenen %49,22 ez zen bozkatzera joan. Bozkatzera zergatik joan ez ziren galdetzean, eskaintza politikoaren erakargarritasun-eza eta politikariekiko konfiantza falta aipatu zituzten gehienbat hiritarrek, eta ez, ordea, kutsatzeko beldurra. (CIS 3293).





Iturria: guk geuk sortua Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuetatik abiatuta.

Arrazoiak arrazoi, kontua da azken hauteskundetako abstentzioa ordura arte izandako abstentziorik altuena (1994an, %40,31koa) baino 9 puntu altuagoa izan zela. 2001az geroztik, joera goranzkoa izan da, eta datuak kezkarriak dira benetan; izan ere, bozkatzera hiritarrek daukaten tresna demokratikoa da, beren beharren arabera politikak publikoak bultzatuko dituen gobernuaren eratzeko ordezkariak hautatzeko aukera ematen diena. Hortaz, abstentzioa muturrekoa bada, Eusko Legebiltzarreko ordezkariak onartu beharko dute hautagaien profilak ez zetozeela bat bozkatzera joan ez ziren horien interesekin. Errenta baxudunak, jatorria EAetik kanpo dutenak, goi-mailako ikasketarik gabeak eta ideologia batekin

ere identifikatuta sentitzen ez direnak izan ziren gehien abstenitu zirenak (CIS 3293). Ildo horretan, aspimarratzekoa da hauteskunde mahai batzuetan abstentzio-portzentajea bereziki altua izan zela, adibidez, Gasteizko Ali-Gobea (%77), eta Bilboko Otxarkoan (%65,6).

“Abstentzioa muturrekoa bada, Eusko Legebiltzarreko ordezkariak onartu beharko dute hautagaien profilak ez zetozeela bat bozkatzera joan ez ziren horien interesekin”





Kontuak horrela, Gobernuak bere zilegitasuna berreskuratu beharko du erabakiak hartzeko prozesu irekiak proposatuz, hori baita abstentzio-maila altua eta ordezkarietikiko (politikari zein bitartekarietikiko) konfiantza-krisia konpentsatzeko modu onena. Elkarlanean oinarritutako gobernantza da gakoa; hau da, arazo publikoak konpontzeko garaian, eta bereziki, erabakiak hartzean, lidergoa erakustez gain gizarteko sektore desberdinen ideia, jakintza eta kezkek kontuan izatea, betiere sektore publiko-pribatuen arteko elkarlana, gizarte zibil antolatuaren zein ez-antolatuaren parte-hartzea, eta adituen jakinduria baliatuz.

03

EUSKO JAURLARITZAREN ERRONKAK

LEHENDAKARIA ETA PSE-REKIKO GOBERNU AKORDIOA



Iñigo Urkullu lehendakariak kargua hartu baino egun batzuk lehenago sinatu zuten beren Gobernu Akordioa¹ EAJk eta PSEk. Akordio horretan, XII. legegaldian zenbait «eraldaketa» burutzeko konpromisoa hartzen du koalizio-gobernuak: :

- Euskal herritar guztien osasuna bermatzea.
- Ekonomia eta enplegua suspertzea pandemiaren aurreko mailak berreskuratzeko, baina erronka eta premia berrietara egokituta.
- Inor atzean ez uztea gizarte kohesionatu bat herrialde-inbertsiorik onena dela definitzen duten parametroetako batean ere.

Helburu horietan oinarrituz eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak kontuan hartuta, honako lau jarduketa-ardatz hauen esparruan proposatu ditu gobernuak bere konpromiso programatikoak:

- Oparotasuna
- Pertsonak
- Planeta
- Bizikidetzatza, autogobernua eta giza eskubideak.

¹ EAJ- PSE-EE Gobernu Akordioa <https://www.eaj-pnv.eus/esp/documentos-listado.php?idTipoDocumento=229>

Lehentasun horiek, ordea, bi faktoreren menpe garatuko dira: batetik, pandemiaren garapena eta hura kontrolatzeko neurrien menpe, eta, bestetik, Europa-mailako akordioetan jasotzen diren lehentasun estrategikoen eta horien arabera sortutako agenda politiko berriaren itzalean. Akordioan, Lehendakariak adierazten du erabateko konpromisoa hartzen duela Espainiako Gobernuarekin estuki lan egiteko, Next Generation EU Programaren funts europarrak lortzeko eta kudeatzeko, eta Espainiako Estatuak Europara bidaltzeko sortuko duen Susperraldi eta Erresilientziako Plan Nazionalean laguntzeko. Hala ere, argitzear dago oraindik zer proiektu finantzatzeko diren, eta funts horiek autonomia erkidegoetara, eta zehazki EAEra, nola helaraziko diren, eta, seguru asko, horren inguruko eztabaidak pisu handia izango du datorren urteetako agenda politikoan.

Pandemiaren bat-batekotasunak eta hura kontrolatzeko sortu diren zailtasunek eragina izan dute EAEko sare ekonomiko, industrial eta enpresarialean: enpresak itxi dira, langabeziak gora egin du, eta lehendik egoera txarrean zeuden taldeen (gazteak, emigranteak eta kualifikaziorik gabeko bertako hiritarrak²) egoera okertu egin da. Egoerak horrela jarraitzen badu, eta naurri egokiak hartu ezean, aurreikuspenek diote langabeziak emakumeak kaltetuko dituela batik bat, lanpostu prekarizatuagoak izateaz gain, zaintzaren zama handiena ere haien kargu dagoelako. Lanpostu formalei (osasungintza, garbiketa, gizarte-lana eta zerbitzuak) zein ez-formalei (etxeko lanak eta menpeko pertsonen zaintza) dagokienean, pandemiaren aurretik, bitartean zein ondoren emakumeek dute arduraren handiena³⁻⁴.

Desparekidetasuna larritzea izango da pandemiaren eta "Itxialdi Handia"⁵ izendatutakoaren eragin nabarmenetako bat. 2008ko krisia hasi

zenetik, polarizazio-prozesu bat gertatu da euskal gizartearen egiturari, batik bat, talde txiro edo/eta baztertuenen egoerak okertzearen ondorioz⁶. Gainera, konpondu gabeko egoera horrek txarrera egin du garapen teknologikoaren eta globalizazioaren kausaz, eta hala, bi motatako lanbidetan banatuta geratu da lan-merkatua: alde batetik, goi-mailako kualifikazioa eskatzen duten eta mugikortasuna, telelana egiteko aukera, lanpostu onak eta soldata duinak eskaintzen dituzten lanak daude; eta, bestetik, bertaratzea eskatzen duten, prekarioak diren eta lan-baldintza eskasak eskaintzen dituzten lanbideak (orokorrean oso feminizatuak). ABEEn eragin positiboak kurba leundu badu ere, langabezia gorakada handia gertatu da krisi honekin, eta galera hori gehiago ari da nabaritzen emakumeen taldean gizonezkoenean baino, gazteenean nagusienean baino, kanpotarrenean bertakoen baino.

Adostutako akordioan, inor atzean ez uzteko konpromisoa hartu dute Iñigo Urkulluk eta Idoia Mendiak, gizarte kohesionatu bat definitzen duten parametroetan denok aurrera egitea herrialde-inbertsiorik onena dela sinestuta. Hala, honako konpromiso hauek hartu dituzte:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta Erreformatzea.
- Hezkuntza-esparruko partaideekin elkarlanean hezkuntza egokitzea eta hobetzea.
- Etxebizitzarako eskubidea zabaltzea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdetasunaren defentsa irmoa egitea eremu guztietan.

² Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkestak <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2020/la-encuesta-poblacion-relacion-actividad-para-revela-que-trimestre-han-desaparecido-33-000-empleos/>. Eustat, Euskal Estatistika Erakundea

³ ¿Qué sabemos del impacto de género en la pandemia de la COVID-19? <https://www.isglobal.org/-/que-sabemos-del-impacto-de-genero-en-la-pandemia-de-la-covid-19->

⁴ 'Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik'. Emakunde. 2020ko uztaila https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde_covid19/eu_def/adjuntos/2020.07.la_igualdad_en_epoca_de_pandemia.pdf

⁵ Hala izendatu du NDFak pandemiak eragindako atzeraldia.

⁶ Pobreza, exclusión y desigualdad social en Euskadi. SIIS. 2019 <http://blog.siiis.net/2019/11/pobreza-desigualdad-exclusion-euskadi/>

Gizarte-politiken aldeko apustua egiteak kanpora begiratzera behartuko ditu nahitaez euskal administrazioak, gero eta konplexuagoak diren zenbait arazok gure gizartean zer eragin duten aztertzeko; besteak beste, desparekotasuna, erronka demografikoa, klima-aldaketa, gizartearen eta ekonomiaren digitalizatzea, aniztasuna eta/edo migrazioak hartu behar dituzte kontuan; hain zuzen ere, erronka horiek erakusten baitigute gure gizartea gero eta heterogeneoagoa dela, eta hortaz, ezinbestekoa dela errealitate desberdinei erantzuten jakingo duen administrazio arin eta efizientea eratzea, baliabideak eraginkortasunez kudeatzen jakingo duena. Pandemiak baliabideak urritzera ekarri du (EAEko administrazio publikoen diru-sarrerak %13,3 gutxituko dira 2020an⁷), eta, aldi berean, inbertsio publikoa handitzea. Krisi honen ondoriozko finantza-mugapenak bere helburu eta jarduketak hautatzeko garaian arretatsuagoa izatera behartuko dute Eusko Jaurlaritza, baina baita erabaki ausartagoak hartzera ere (politika publikoen eraginkortasuna maximizatu nahi bada bederen); hala, ezinbestekoa izango da eredu efiziente, jasangarri eta parekide bat helburu hartuta inbertsio ausartak egitea, bai eta gizarte-kohesioa eta justizia indartzeko erreforma fiskalak gauzatzea ere.

PANDEMIA KONTROLATZEA, ETA OSASUN-SISTEMA INDARTU ETA MODERNIZATZEA

Osasun-sistema kolapsatzeko zorian egon zen pandemiaren lehen olatuan. Martxotik apirilera bitartean, gure autonomia erkidegoko ospitale garrantzitsuenetako batzuk beren lekuen %100 beteta izatera iritsi ziren ia, eta langileen %5,6k (Osakidetzako 2.168 profesionalek) gaixotasuna hartu zuten. Horietatik 211 ingresatu egin behar izan zituzten; 19 ZIUetan. Galdakaoko erizain batek bizia galdu zuen. Materialen hornikuntzan ere kolapsoa gertatu zen (bai NBEen bai ekipamendu medikoen hornikuntzan), eta agerian geratu zen nazioarteko hornitzaileekiko menpekotasuna oso handia dela, batez ere merkatu txinatarrarekikoa. Egun haietan merkatuan gertatu zen hausturak materialen eskasia itzela eragin eta egoera larrian utzi zuen Osakidetzak.

Osasun-sistemaren ahalmena indartzea (langile nahikoa kontratatzea eta azpiegitura, material eta produktu mediko nahikoa izatea) ezinbestekoa da herritarren osasunerako eskubidea bermatzeko eta pandemiari eutsi ahal izateko, baina baita pandemiaren

albo-eraginak apaltzeko ere —adibidez, gainerako gaitz eta eritasunen arretan atzerapenak sortzea ekiditeko—.

“Osasun-sistemaren ahalmena indartzea (langile nahikoa kontratatzea eta azpiegitura, material eta produktu mediko nahikoa izatea) ezinbestekoa da herritarren osasunerako eskubidea bermatzeko eta pandemiari eutsi ahal izateko”

Gainera, osasungintzari estuki loturiko sektore ekonomiko bat indarrez azaleratu da: osasun-sektorearentzako ekipamendua ekoizten duena. Pandemiaren egun latzenetan eskasia ia erabatekoa pairatu genuen ekipamendu eta materialei zegokienean, eta horrek agerian utzi zuen atzerriko hornitzaileekiko dugun menpekotasuna. Euskal sare industrialaren ezaugarriak direla eta —ekipamendu-ondasun eta makina-tresna ugari ekoizten da—, ez litzateke zaila ekoizle batzuk berregituratu eta gorantz doan osasun-sektore horretarantz bideratzea. Berregituraketa hori da, hain zuzen ere, Gobernu Akordioa lehentasunetako bat.

Illo horretan, ondorioztatu da Euskadiko sare industrialak euskal herritarrentzat estrategikoak diren sektore industrialetan balio-kate osoak bermatzeko gai izan behar duela, kanpoko ekoizleekiko menpekotasun handia ezabatzeko. COVID-19aren pandemiaren tankerako ‘beltxarga beltzen’ aurrean prest egoteko modu bakarra sare enpresarial indartsu batetik eta eskaintza zientifiko-teknologiko on batetik abiatuta balio-kate osoak sortzea da: jakintza sortu, hura ustiatu, jakintza horrek sortzen duen balio gehiena xurgatu. Euskal enpresen batez besteko langile-kopurua handitzeko sustapen-neurriak hartu behar dira, enpresa handiagoak behar baititugu, eta, horrez gain, eskaintza-sustatzaileak (unibertsitateak eta ikerkuntza-zentroak) babestu behar dira, nazioarteko eragileekin harremanak izateko eta kanpoan eraturako jakintza erakartzeko duten gaitasuna sarituz. Mondragon Korporazioa eredu da horretan: printzipioz maskarak ekoizteko diseinatuta ez egon arren, baliabideak, jakintza eta borondatea izanik, berehala egokitu baitziren egiteko horretara

⁷ https://www.eldiario.es/euskadi/administraciones-vascas-fijan-2-058-millones-golpe-pandemia-recaudacion_1_6294591.html

LEGE-ERREFORMAK

Iñigo Urkulluren gobernuak, gehiengo absolutua izanik, egonkortasun politiko handiz baina testuinguruzinez zalantzarazgarrian helduko dio legealdi berri honi: Madrilén panorama politikoa oso polarizatuta eta zatikatuta dago; Espainiako gobernuak (PSOE eta Unidas Podemos alderdien arteko koalizioak osatuta) beste alderdi batzuen babesaren menpe dago aurrekontuak onartzeko; nazioarteko egoera politiko zalantzarazgarrian mundu ordena berri bat dago jokoan; sistema aldeaniztunak eta lankidetzaren krisian daude (Brexitaren akordioak agerian utzi duenez); AEBetan azaroan hauteskundeak egingo dira presidentea hautatzeko, eta, hori gutxi balitz, pandemia oraindik kontrolatzeke dago. Eta testuinguru horrek markatuta garatu beharko ditu EAEko gobernuak bere lege-ekimenak: pandemia kontrolpean hartzea, ekonomia eta lan-merkatua suspertzea, EAEn lehendik ere gorantz zihoazen desparekotasun-indizeak txikitzea, Europar Batasunak exijitzen dituen erreforma estrukturalak ekiten, eta Estatutu berri baten bidez autogobernua eguneratzea.

Hasteko, EAEko gobernuak hitz eman du joan den legealdiaren amaieran izapidetu gabe geratu ziren 30 bat lege legealdi honen hasieran lehentasunez izapidetuko direla. Aipagarria da orokorrean EAEn gutxi eta astiro erregulatu da, eta horrek araua onartzen denerako edukia zaharkituta egoteko arriskua dakarrela. Izan ere, gizarte-errealitateak erritmo bizian ari dira aldatzen, eta lege-ekoizpena ez bada abiada horretara egokitzen, araua onartzen denerako errealitatea urrats bat aurrerago joango da beti.

XII. legealdian honako lege-erreforma hauek garatzeko edota aldatzeko konpromisoa hartzen dute sinatzaileek Gobernu Akordioan: Hezkuntza Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea, Berdintasunaren Legea, Mugikortasun Jasangarriaren Legea, Landa Garapenerako Legea, Gazteria Legea, Hirugarren Sektore Sozialaren Legea, Ekarpenen Legea, Euskal Enplegu Publikoaren Legea, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea, Ingurumen Administrazioaren Legea, Klima Aldaketari buruzko legea, Gurtzarako Zentroen Legea, Parte hartzeari eta Gardentasunari buruzko Legea, Euskal Sektore Publikoaren Legea, Xedapen Orokorraren Lanketarako Legea, Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalerari buruzko Legea, Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen Legea, EAEko Dirulaguntzen Araubidearen Legea, Kirolaren Legea, Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea, Dokumentu Ondareari eta Artxibo Sistemari buruzko Legea, Garapenerako Lankidetzaren Legea.



EGITURAZKO ERREFORMAK

Pandemiak agerian utzi ditu EAEko gobernuak lehendik zeuzkan zenbait erronka, hala nola trantsizio ekologikoa; trantsizio digitala; trantsizio demografikoa; administrazioa gero eta heterogeneoagoa eta dinamikoagoa den biztanleriari erantzunak emateko gai den tresna arin bihurtzea; lan-prekarietatearen indize altuak murriztea eta lana berrantolatzea; lan-egonkortasuna bermatuko duen eta kanpoko hornitzaileekiko menpekotasunik izango ez duen industria jasangarri eta lehiakorra lortzea; eta desparekotasun-indizeak txikitzeke eta gaur egungo diru-sarrerak bermatzeko sistemak babesten ez dituenengana heltzeko gizarte-babeserako politikak eguneratzea (eta, agian, oinarritzko errenta unibertsalari buruzko eztabaida irekitzea). Gainera, hezkuntza-sistemaren erreformari ausardia handiz ekin beharko zaio, eta, pandemia garaian egon arren, ezingo da haurrak eskolara joatea helburu bakartzat hartu. Biztanleriaren zahartzearen ondorioak ere kontuan hartu beharko dira, eta gazteentzako lan- eta bizi-aukerak sustatuko dituen belaunaldiarteko itun bat garatu. Azkenik, berdintasun-politiken aldeko apustua indartu beharko da, lehendik ere desabantaila egoeran zeuden emakumeak bereziki kaltetu baititu pandemiak.

Erreforma-zerrenda luze horrek agenda politikoa eta gizartearen lehentasunen inguruko eztabaidak baldintzatuko ditu ez soilik 2030era begira, baita 2050era begira ere.

Epe luzerako begirada horren pean, pandemiaren ondorioek paradigma aldaketa eragin dute Europar Batasunaren erantzunetan. Europar Kontseiluak Next Generation EU Susperraldi eta Erresilientziako Funtsa⁸ jarri du martxan, eta hala amaitutzat eman du 2008ko krisiari erantzuteko baliatu zituen murrizketa-politikek estrategia. Oraingoan, «Estatu kapitalismoaren» aldeko keinua egin du Europar Batasunak, defizita malgutuz eta zorraren marjina handituz —Seguruenik, zorraren marjina horiek 2022an berrikusiko ditu berriz EBk, eta horrek tentsioa sortuko du susperraldian zer bide hartu erabaki beharko baita—.

EBren Susperraldi eta Erresilientziako Funts hori Europar Batasunaren espiritua berreskuratzearen aldeko apustua da, bai eta trantsizio ekologiko eta digitalean oinarritutako egiturazko erreformak gauzatzeko bide-orria ere. New Generation EU funtsen finantzaketa jaso ahal izateko, ekimen batek egiturazko eraldaketa zehatzak planteatu

⁸ https://ec.europa.eu/info/live-work-travel-eu/health/coronavirus-response/recovery-plan-europe_es



beharko ditu funtsezko eremu batean, eta ez da, besterik gabe, egun garatzen ari den edozein proiektu diruztatzeko baliatuko. Helburu nagusia alor jakin batzuetan eraldaketa ekarriko duten baldintzak sortzea da, besteak beste, osasun-sisteman; ikerkuntzan; hezkuntzan eta ikaskuntza digitalean; kultur industrietan; gizarteko-politiketan; uraren eta hondakinen kudeaketan; biodibertsitatearen zaintzan; energia berriztagarrien azpiegituretan; industria indartzeko politiketan, eta Hiri-agendan. Azken horren barnean sartzen da mugikortasun jasangarria. Funts horren barruan, honako funts txikiago hauek bereizten dira: Kohesio Funtsa, Landa Garapenerako Funtsa eta Bidezko Trantsiziorako Funtsa. Onartu diren funtsen %30 klimari loturiko proiektuetara bideratu beharko dira.

Batzordeak ekonomia suspertzeko ezinbestekoak izango diren ekimen «enblematikoetan» inbertitzera bultzatu nahi ditu EBko estatuak. Hona hemen alor «enblematiko» horien zerrenda:

- Power up (teknologia garbiak eta energia berriztagarriak).
- Berrikuntza (energia-eraginkortasuna).
- Birkarga (garraio jasangarria).
- Konektagarritasuna (5Ga eta banda zabala hedatzea).
- Modernizazioa (administrazio publikoak erreformatzea).
- Hedapena (datuen ekonomia).
- Hobekuntza (hezkuntza-sistemak).

EBren funtsen printzipioekin lerrokatuta, Pedro Sánchezen gobernuak Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientziako Plan Nazionala⁹ diseinatu du. Lau ardatz nagusi ditu plan horrek: trantsizio ekologikoa, trantsizio digitala, gizarte-kohesioa eta genero-berdintasuna. Gero, lau ardatz horiek mamitzeko, 10 palanka-politika zehaztu dira. Agerikoa da horiek diseinatzean gobernantza-egiturak eta koordinazioa indartzearen aldeko apustua egin dela, eta autonomia erkidegoen eta gainerako eragile sozial, ekonomiko eta unibertsitarioen ekarpena jaso dela. Estatuko Administrazio Orokorraren erreforma ere egingo da, Europako, Estatuko eta autonomietako funtsak modu arin eta eraginkorrean kuditatzeko.

⁹ https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2020/07102020_PlanRecuperacion.pdf



ESPAINIAKO GOBERNUAK ZEHAZTUTAKO PALANKA-POLITIKAK

1. Landa- eta hiri-agenda
2. Biodibertsitatea berreskuratzea eta babestea
3. Trantsizio energetiko bidezkoa eta inklusiboa
4. Administrazioa modernizatzea eta digitalizatzea
5. Ekoizpen-sistema digitalizatzea
6. Zientzia eta berrikuntzarako plana
7. Hezkuntza eta jakintza
8. Zaintzaren ekonomia eta enplegu-politikak
9. Kultur industriak eta kirola
10. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusiboa eta jasangarria lortzeko

Proposamen horiek agenda politiko berri baten norabidea markatu dute Espainian; Euskadin, aldiz, eta EAJ eta PSE-EE-ren arteko Gobernu Akordioan jaso dira norabide berri horren nondik norakoak. Funtsari dagokionez, akordioan bertan aipatzen da EAEk, oraingoz, gobernu zentralarengandik jasoko duena: legealdiko lehen aurrekontuetan Euskadi berreraikitzeke 10.000 milioi bideratzea onartu du Sánchezen gobernuak, Eusko Jaurlaritzak Europako funtsetarako aurkeztuko dituen ekimen eraldatzaile eta bultzatzaileak gara ditzan, eta Eusko Jaurlaritzaren eta beste alderdi politikoaren arteko akordioetatik eta elkarlanetik sortutako beste ekimen batzuk bultzatzeko aukera ere izan dezan.

Plan horiek guztiek ekarriko dituzten erronkei aurre egiteko, guztiz funtsezkoa izango da kudeaketa politikoa eta administratiboa hobetzea, horizontalki zein bertikalki iragazkorra izango diren gobernantza-egitura transbertsalak eratzea, alegia. Ezin da ahaztu erronka sozialak muin-muinean daude ingurumenaren eta ekonomiaren alorreko erronkekin lotuta. Ildo berean, gizarte-kohesiorik eta hezkuntza-sektorearen parte hartzerik gabe, ezin daiteke trantsizio digitala, ekologikoa ez demografikoa burutu, eta alderantziz. Egun, gobernantza publikoko egiturak ez daude prestatuta arazo horiek lantzeko eta irtenbideak aurkitzeko, hermetikoak eta iragazgaitzak izateaz gain, ez daudelako ondo koordinatuta, eta zuzendaritzatan, agentzia publikotan, sailetan, zerbitzutan eta beste hainbat ataletan adarkatuta daudelako.

Gobernantzaren eraginkortasun falta ez da, ordea, administrazioaren arazo potolo bakarra. Hona hemen beste zenbait: prozesu eta prozedura publikoak ez dira nahikoa malguak; funtzionarioen ehuneko handi batek ez daki komunikazio-teknologia berrietan oinarritutako kudeaketa-tresna berritzaileak behar bezala erabiltzen; hiritarrekiko konpromisoa falta da; etengabeko oztopoak eta komunikazio-hutsuneak azaleratzen dira hiritarrek beren beharrak adierazteko eta administrazio publikoek horiei erantzuteko prozesuetan...

Gobernantzarik eta gaitasun administratiborik (State capacity) gabe, ezinezkoa da planteatutako planek horren erronka konplexuei erantzuna eman ahal izatea.

Agenda publiko eraldatzailea

Agenda politikoa aldatu den arren, lehengo arazo estrukturalak hor jarraitzen duten —horietako batzuk 2008ko krisiaren ondoriozkoak—. Eusko Jaurlaritzak bere politiken bidez bultzatuko dituen eraldaketen sakontasunak baldintzatuko du batez ere XII. legealdia, eta seguru asko, legealdia bukatu eta gobernuari kontuak eskatzean, sakontasun hori izango da ardatzetako bat.

OSASUN-SISTEMA MODERNIZATZEA

Osasun-sistemaren erresistentzia eta ahalmena indartzea, kontratutako langileei, osasun-produktu kritikoei eta azpiegiturei dagokienean. Erreforma horien barnean, zaintzari bideratutako inbertsioaren bidez, zahar-etxeetan bizi diren adineko pertsonen —pandemiaren kolpe latzena jaso duten horiek— arreta egokia jasoko dutela bermatu beharko da; hau da, behar dutenetan, larrialdi zerbitzuak eta zaintza intentsiboak jasoko dituztela. Lehen mailako arreta eta osasungintza digitala indartu behar da. Osasun

Publikoko Lege berriak alor horietan sakontzeko balioko du.

BERRINDUSTRIALIZAZIOA (TRANSIZIO EKOLOGIKOA ETA DIGITALA)

Globalizazioak, gastuen egituraren oinarrituta, ekoizpena deslokalizatzea ekarri zuen, eta lan-baldintza ezin kaskarragoak dituzten lekuetan etekin itzelak atera dituzte zenbait enpresak langileen esplotazioaren lepotik. Kanpo-merkatuekiko menpekotasunak zer ondorio dituen ikusita, beharrezkoa da gure ekonomiarako funtsezkoak diren produktuak identifikatu eta bertan ekoizten hastea. Gainera, ekonomia suspertzeko ezinbestekoa da industria modernizatzea. Horretarako, bi modernizazio-palankarekin egin behar da bultzatzea, digitalazioarekin eta ingurumen-bektoreekin, helburua eraginkortasunean, prozesuetan eta produktu berezitan berrinbertsio jarraitua sustatzea baita, hala, jakintza ondasun bihurtu eta balio erantsia handitzea.

“Ekonomia suspertzeko ezinbestekoa da industria modernizatzea”

Industria-politika berri bat garatzeko ezinbestekoa izango da industria hori zer energia motak mugituko duen, klima-aldaketan zer inpaktu izango duen, enpleguak nolakoak izango diren, zergak nondik bilduko diren, enpresa berri horiek zer salduko duten eta langileei zer prestakuntza eskatuko zaien pentsatzea. Eta horretarako, gobernantza eta koordinazioa beharko dira.

Azkenik, moldaketa-prozesu horretan, berrindustrializazioaren «kaltetuez» arduratu beharko da administrazioa; deskarbonizazio prozesuaren ondorioz, Euskadiko sektore garrantzitsu batzuk (automobilgintza, petrokimikoa, aeronautikoa, metalgintza, papergintza) eraldatu edo berregituratu egingo dira eta.

HEZKUNTZA

EEuskadik erronka handi bat du aurrez aurre: Euskal Hezkuntza Legea oraindik onartzeke egonda, hezkuntza-sistema XXI. mendeko errealitatera egokitzea, eta hori guztia, ikastegien eguneroko funtzionamendua erabat baldintzatzen duen pandemia baten erdian. Hezkuntza-sistema parekidea nahi badugu, malgutu egin behar dugu, ikaskuntza pertsonalizatua lehenetsita. 360º-ko hezkuntza ez da eskolan soilik garatuko, inguru hurbileneko baliabideak eta guztiontzako digitalizazioaren ahalmenak ere aprobeztatuko baititu beste testuinguru batzuekin,

hurbil zein urrutikoekin, harremanetan jarri eta haiekin lan egiteko. Hezkuntza horrek curriculum malguagoa izango du, eta horretan, ezinbesteko edukia (ikasle guztientzat berdina) eta desiragarriak (testuinguru bakoitzari egokituak) bereiziko dira. Eredu berri horrek irakasleek sarean lana egitea (Eskola Txikiak) sustatuko du, bai eta irakasle horien ebaluazioan eta prestakuntzan sakontzea ere. Zuzendaritza-eginkizuna profesionalizatzearen aldeko apustua ere egingo da.

ENPLEGUAN BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA MURRIZTEA

Emakumeak, etorkinak eta kualifikazio-maila baxua daukaten langileak dira COVID-19aren ondorioak gehien jasan dituztenak. Kolektibo horiei eskaintzen zaizkien behin-behineko kontratuek oztopatu egiten dituzte norbanako horien lan-aukerak, egonkortasuna eta produktibitatea.

Beharrezkoa da ekoizpen-sektorea dibertsifikatzearen, sektore teknologikoa, ekonomia berdea eta zaintza-ekonomia pertsonalizatua sustatzearen eta sare industrialak suspertzearen aldeko apustua egitea. Horrelako jarduera ekonomikoak, lan-postu egonkorren sortzaileak izateaz gain, intentsiboak baitira ezagutzaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Enplegu-estrategiaren xede nagusiak enplegu-egonkortasuna sustatzea eta soldata duinak sortzea izan beharko du. Plantilletan emakume gehiago sartzea da euskal industriak oraindik gainditu gabe duen beste erronketako bat.

GIZARTE-LAGUNTZEN ERAGINKORTASUNA HOBETzea

Osasun-krisiaren kudeaketan argi ikusi dugu bizi-baldintzek eragin zuzena dutela gaixotasunen hedapenean, eta baldintza txarrenetan bizi direnak izaten direla kaltetuenak¹⁰. Krisiak areagotu egingo ditu pobrezia eta gizarte-bazterketa, eta talde jakin

batzuei eragingo die gehienbat: ardurapean seme-alabak dituzten familiei, emakumeak buru dituzten familia gurasobakarrei, gazteei eta jatorria Euskaditik kanpo dutenei. Administrazioek ziurtatu beharko dute planteatutako erreformak pobrezia murrizteko tresna azkarrak, hautemangarriak, eraginkorrak eta pisudunak direla. Pandemiaren ondoriozko testuinguru ekonomiko eta sozial zail honek alor jakin batzuei (berdintasuna, gazteak, ardurapean seme-alabak dituzten familiak) begirako inbertsio-politikak egitea eskatuko du, aukera-berdintasuna bermatu eta desperekotasun-arrakala handitzea ekiditeko.

ENERGIA AURREZTU ETA KLIMA-ALDAKETARI AURRE EGITEA

Legealdi honetan, Klima Aldaketaren legea izapidetuko du Eusko Legebiltzarrak. Nazioarteko beste herrialde eta eskualde batzuekin alderatuta, Euskadi oso atzean dago energia berriztagarriak sortzeko dagokionean. Eskaera hobeto kudeatu ahal izateko, sare energetiko adimendunak garatzen eta iturri berriztagarrietatik datorren energia elektrikoa biltegiratzen hastea komeni da. Bestalde, eraikinetan energia-kontsumoa gutxitzea garrantzitsua dela azpimarratzen jarraitu behar da, eta birgaikuntzako eta energia-eraginkortasuneko programak beharizan handiena dutenen eskura jarri. Eraikin publikoetan (ikastegiak, erietxeak, liburutegiak...) elektrizitatea sortzeko erak bultzatu behar dira. Ekonomia zirkularraren aldeko apustua egitea ere funtsezkoa izango da, konpontzeak, berrerabiltzeak eta birziklatzeak ekonomian inpaktua duten inbertsioak sortzen baitituzte.

Gobernuaren apustuak bat hidrogenoa erabiltzea da; Bilboko portuan planta bat irekitzea da helburua. Horriekin baino lehen, ordea, eredu horren neutraltasun klimatikoa eta energia-eraginkortasunaren inguruko eztabaida sakona burutu beharko da.

Energia berriztagarrien aldeko apustua egingo bada, premiazkoa da horrekin batera legedia aldatzea. Arauak trantsizio hori babestu eta energia-eredu

¹⁰ Pandemia. Sonia Shah. Capital Swing. 2020



berria lagundu beharko du, beste herrialde batzuetan (Alemania) egin den bezala. Ezinbestekoa da politika eraldatzaileetan gizarteak funtsezko papera izatea, eta bereziki, esparru honetako aldaketa-prozesuetan; izan ere, kontuan hartu behar da klima-aldaketaren aurkako borrokan arrakastaz burutu diren politika guztietan erabakigarriak izan direla bai aldaketaren inguruko gizarte-kontzientziazioa bai ingurune jasangarriago, garbiago eta atseginago baten aldeko gizarte-presioa.

I+G+B POLITIKAK HOBETZEA

Joan den legealdian, EAEk bere BPGaren %1,8 bideratu zuen I+G+b-ra. Ehuneko hori urrun dago Suediak (%3,4) eta Austriak (%3,16) egindako inbertsioetatik, eta ez da Europar Batasuneko batez bestekora (%2,06) iristen. EAEko egoera lurraldeka aztertuz gero, I+G inbertsio osoaren %45,8 Bizkaian geratzen da, %42,5 Gipuzkoan, eta %11,7 Araban. Ehuneko horiei ekonomia bakoitzean duten pisuaren arabera begiratuta, ikusiko dugu berrikuntzan egindako gastuak Gipuzkoako BPGaren %2,37 hartzen duela, Bizkaiko BPGaren %1,68, eta Arabako BPGaren %1,35.

Europar Batasunak ekintzailatza eta enpresa sortuberriak bultzatzeko inbertsioa egitea eskatzen die batasuneko herrialde eta eskualdeei. Inbertsio horren xedea enpresei hazten eta digitalizatzen laguntzea da, balio erantsi handiagoa duten jardueretan espezializatu daitezen, eta, hala, nazioarteko merkatuetan presentzia handitzeko aukera izan dezaten.

Zer motatako enpresak bultzatu behar diren (zer helbururekin) eta parte-hartze publikoak nolakoa izan behar duen (inbertsio inpaktuduna) eztabaida publiko eta politikoaren bidez zehaztuko da. Pandemiak inbertsio publikoa zinez garrantzitsua dela erakutsi digu, baina baita aldaketa zehazteko eta gidatzeko garaian parte-hartze publiko proaktiboak berebiziko papera betetzen duela ere. Hortaz, «Estatu kapitalismoaren» aldeko apustua egiteko garaia da; hau da, espresen gaur egun beren kabuz egin ezin ditzaketen inbertsioetan lagunduko dien «gobernu ekintzaile» bat garatzeko unea.

HARREMANAK ETA LOTURAK SUSTATZEA

Salgaien trenbidezko garraioko lotura osatugabeek eta EBko gas- eta elektrizitate-merkatuen integrazio mugatuak oztopatu egiten dute Euskadik EBko merkatu bakarrari etekin osoa ateratzea. Beharrezkoa da salgaien garraioan tren gehiago erabiltzeko inbertsioak egitea, bai eta trenek hiriguneak zeharkatzea saihestea ere, Bilboko Portuko Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearekin egin den bezala. Gainera, Euskadiko puntuen arteko loturak hobetu behar dira, bai denborari bai prezioari dagokionean. Mugikortasun jasangarria

sustatzeko ardatzetako bat intermodalitatea aintzat hartzea izango da, Euskadin lekualdatze gehienak udalerrien artekoak baitira. Gai horiek guztiak kontuan hartu beharko dira politika publikoak planifikatzean eta Mugikortasun Jasangarriako Legea idatzi eta izapidetzean.

LANDA- ETA HIRI-AGENDA

Hiritarren artean oso hedatuta dagoen kezketako bat atmosferako kutsadurari buruzkoa da, eta hortaz, aukera paregabea dute administrazioek, hiritarren bultzada hori baliatuz, beste lehentasun batzuk izango dituen hiri-planifikazio bat garatzeko: gune berdeak, jolaserako eta aisialdirako guneak, hiri-biodibertsitatea eta mugikortasuna.

COVID-19ak ikusarazi digu biodibertsitateak berebiziko garrantzia duela gaixotasunak kontrolatzeko eta ekosistemen osasuna mantentzeko garaian. Foru aldundiekin batera estrategiak garatu beharko dira emisioei, ongarriei eta lurzoruari dagokienean nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreak inpaktu neutroa edo are positiboa izan dezan. Biodibertsitatearen sustapenak (espezie inbaditzaileen aurkako programak eta gure ekosistemen inguruko ikerketa) lan-eremu berri bat irekitzen digu gure biodibertsitatea klima-aldaketari egokitzeko bidean (Nartura 2000 Sarea). Ekonomia zirkularra bultzatzea ere gakoa izango da.

“Hiritarren artean oso hedatuta dagoen kezketako bat klima-aldaketa da, eta hortaz, aukera paregabea dute administrazioek, politika berdeei bultzada emateko”

AUTOGOBERNUA - ESTATUTU BERRIA

Zortzi urte igaro dira Iñigo Urkullu lehendakariak, orduan hautagaia baino ez zela, Estatutuaren erreforma bultzatuko zuela iragarri zuenetik. 2012ko hauteskunde-kanpainan egin zituen adierazpen haietan, EAERI estatus juridiko berria emango zion Estatutu berria garatzeko asmoa azaldu zuen. Eusko Legebiltzarreko Autogobernurako Lantaldeak proposamenak lantzen eta eztabaidatzen urteak eman eta gero, EH Bilduk eta EAJk estatutu berriaren artikulua idazteko oinarriak hitzartu zituzten. Hitzarmen horretan, Gorte Nagusietara bidali baino

lehenagoko kontsulta gaitzaile bat, erabakitzeko eskubidea, eta "nazio" kontzeptua aipatzen ziren —azken biak gai oso arantzatsuak Gorte Orokorretan onarpena jasotzeko garaian—.

2018ko irailean, batzorde bat eratu zen alderdiek proposatutako adituekin, eta Eusko Legebiltzarrerako bidaliko zen proposamena idatz zezaten agindu zitzairen. Batzorde horrek 2019ko abenduan burutu zuen egitekoa, eta hiru proposamen aurkeztu zituen: bata PPK proposatutako adituarena, beste bat EH Bilduk proposatutakoarena, eta azkena, EAJk, PSEk eta Podemosek proposatutako adituen artean adostutakoa. Azken horretan, adostua izanagatik ere, desadostasunak izan zituzten hiru alderdiek, bai forman bat edukian. Gai arantzatsuenak nazio kontzeptua, hiritartasun eta nazionalitate kontzeptuen arteko aldea, eta erabakitzeko eskubidea izan ziren.

Legealdi berri honetan, Eusko Jaurlaritzaren helburua Madrilen legez arbuiautuko ez den testu bat aurkeztea da. Bide horretan, ordea, zaila izango da joan den legealdian EH Bildurekin adostutakoak hitzez hitz

betetzea, bai eta alderdi horren babesa jasotzea ere. Egoera horretan, beste aliantza batzuk bilatzen saiatuko da ziurrenik gobernua, eta horiek posible izateko, egokitzapenak egin beharko ditu. Madrilgo geopolitikaren alde egin lezake gobernuak: Sánchezen gobernuko alderdiek, beren bertsio autonomikoetan, 16 eserleku lituzkete. 16 horiek EAJren ordezkari gehituta, 47 ordezkari aliantza lortuko lukete (47/75). EH Bildurekin elkartz gero, batura handiagoa litzateke (52/75), baina horrek arriskuan jarriko luke EAJren eta PSEren arteko akordioa, eta Eusko Jaurlaritzako alderdien arteko batura txikitu egingo litzateke (41/75). Aukera guztiek gainditzten dute gehiengoaren langa, eta hortaz, erronka zailena ez da estatutu berria onartzea, estatutu-erreforma horrek luze irauteko formula aurkitzea baino. Horretarako, belaunaldiarteko itun bat lortzea litzateke onena, eta profil hori, gaur egun bederen, EH Bilduk betetzen du ondoen.



04

EUSKO JAURLARITZAKO GOBERNU BERRIA

GOBERNU-TALDEKO KIDEEN PROFILAK, ESKUMENAK ETA
EKIMENAK. XII. LEGEALDIA



Hona hemen gobernukideak eta haien profilak. Bakoitzaren informazio pertsonalaren azpian, Gobernu Akordioaren barnean kide horren Sailari esleitu zaizkion ekimen nagusiak zerrendatu ditugu.

Oharra: Sail bakoitzaren ekimenen zerrenda Gobernu Akordiotik atera dugu. Sail bat baino gehiagorekin lotura duten ekimenak, sail horietan guztietan aipatu ditugu.



Iñigo Urkullu (EAJ)

LEHENDAKARI

Alonsotegin (Bizkaia) jaio zen 1961 ean.

Hirugarren aldiz jarraian hautatu dute Lehendakari.

Irakasle-ikasketetan diplomatua, irakaslea eszedentziaduna da.

Eusko Legebiltzarreko kidea izan zen 1984tik 1987ra eta 1994tik 2007.

2008tik 2012ra EAJko Euskadi Buru Batzarreko presidentea izan zen.

LEHENDAKARITZAREN ESKUMENAK

- Gobernu-programaren jarraipena egitea eta Jaurlaritzaren ekintza planifikatu eta koordinatzea.
- Instituzioen arteko eta sailen arteko koordinazioa. Gobernantza kolaboratiboa sustatzea.
- Gizarte-harremanak eta instituzioen artekoak zaintzea.
- Euskadi kanpoan ordezkatzeta eta proiektatzea.
- Europako gaiak, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzeta, eta euskal gizataldeen eta euskal etxeen arloa.
- 2030 Agendaren ezarpena bultzatzea.
- Prospekzio eta azterketa soziologikoa.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana koordinatzea eta bultzatzea, eta Berrikuntzarako Funtsa kudeatzea.

EKIMENAK

- Europak hurrengo hamarkadan egikaritu beharko dituen trantsizio digitaleko, trantsizio berdeko, osasun-trantsizioko eta trantsizio sozialeko prozesuetan Euskadi eragile nabarmena izatea lortzea, eta hala, proiektu europarrean dugun papera indartzea.
- Garapen jasangarrirako erronka globalak lortzen laguntzea: 2030 Agenda.
- "Euskadi Basque Country" kanpoan proiektatzea.
- Aktiboki parte hartzea Europatik hamarkada honetarako martxan jarri diren plan estrategikoetan, besteak beste, Next Generation EU-Susperraldi eta Erresilientziako Funtsa delakoan.
- SPRIren bulegoekin eta "Basque Trade and Investment" nazioartekotzeko euskal agentziarekin batera eta elkarlanean jardutea.
- Nazioarteko kide estrategikoen sarea finkatzea eta handitzea, sektore anitzeko eta alde biko lankidetzako baterako proiektuak garatuz.
- Mugaz gaindi eta euroeskualdean lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea, espezializazio adimentsuko eremu komunetako ikerketa-proiektuetan eta proiektu industrialetan parte hartuz.
- Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria euroeskualdea bultzatzea.



Josu Erkoreka Gervasio (EAJ)

LEHEN LEHENDAKARIO ETA SEGURTASUN SAILEKO BURUA

Bermeon (Bizkaia) jaio zen
1960an.

2012tik ari da Eusko Jaurlaritzan.
Joan den legegaldian Jaurlaritzako
bozeramailea izan zen. Hainbat
Sailtako burua izan da
(Segurtasuna, Gobernantza
Publikoa eta Autogobernua,
Administrazio Publikoa eta
Justizia).

Zuzenbidean Doktorea,
unibertsitateko irakasle
eszedentziaduna da. Eusko
Jaurlaritzako letradua ere bada.

Espainiako Diputatuen
Kongresuko kidea izan zen
2000tik 2012ra.

ESKUMENAK

- Polizia autonomikoa.
- Hiritarren segurtasuna.
- Hauteskunde-administrazioa.
- Larrialdiak eta babes zibila.
- Trafikoa eta bide-segurtasuna.
- Jokoa, apustuak eta ikuskizunak.
- Segurtasunaren arloko jakinarazpen eta komunikazioak.
- Polizia-ibilgailuak.
- Meteorologia.

EKIMENAK

- Lortutako autogobernuaren defentsa. Gernikako Estatututik transferitzeke geratzen diren eskumenak eskuratzea.
- Politika estrategikoak lantzeko gainerako erakundeekiko (foru aldundiak eta udalak) koordinazioa indartzea.
- Estatutu-ituna eguneratzea.
- Segurtasun Publikoko 2025 Plan berria onestea.
- Larrialdietarako inteligentzia-zentro bat abiaraztea eta hondamendietan laguntzeko unitateak sortzea, zeinek beharrezkoa izatekotan, lurralde artean eta autonomia erkidegotik kanpo jarduteko gaitasuna izango duten.



Idoia Mendia Cueva (PSE)

BIGARREN LEHENDAKARiorde ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA

Bilbon jaio zen 1965ean.

Bere bigarren aldia izango da Eusko Jaurlaritzan, 2009tik 2012ra bitartean Patxi Lópezen gobernuaren parte izan baitzen Justizia eta Herri Administrazio Sailburu gisa.

Zuzenbidean Lizentziatu zen Deustun. Urte batzuez abokatu lanetan aritu ondoren, 2016an sozialisten idazkari nagusi bihurtu zen Europako Batzordean.

Eusko legebiltzarkidea da 2014tik.

ESKUMENAK

- Enplegu-politika. Enplegurako lanbide heziketa, Hezkuntza Sailarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.
- Lan arloko legedia betearaztea.
- Gizarte-ekonomia.
- Enpresen gizarte erantzukizuna.
- Gizarte Segurantzza, Autonomia Estatutuak xedatutako.

EKIMENAK

- Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Estrategia. Krisian zehar galdutako enplegu guztia berreskuratzea eta langabezia-tasa berriz ere %10etik behera kokatzen laguntzea.
- "Gazteen Enplegurako Txoke-plan" bat onestea, 30.000 gazteri lehenengo lan-esperientzia eskaintzeko.
- Euskal Enplegu Sistemaren Legea. Gaitasun profesionalen eta enpleguen arloan etorkizunean zer eskari sortuko diren identifikatzeko behatoki bat garatzea.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2025 Estrategia onestea, lanaldian zehar eta in itinere gertatzen diren lan-istripu larriak erdira murrizteko xedearekin.
- Foru aldundiekin eta udalekin elkarlanean, udalerri-zein eskualde-mailako enplegu-planak garatzea.
- 2019an onetsitako Euskadiko Kooperatiben Lege berriaren arautegia garatzea.
- Bazterkeriaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea, eta zaurgarritasun eta babesgabetasun handieneko egoerei arreta berezia ematea.
- Haurrentzako berme-programa bat sustatzea, ardurapeko seme-alabak dituzten familientzako Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetuz.
- 2022-2025 Gizarteratzeko V. Euskal Plana onestea.
- Gizarte-ekonomia lantzen duten enpresen garapena babestea. Gizarte-ekonomiako enpresetan berrikuntza teknologikoko zein ez-teknologikoko proiektuak bultzatzea.

Idoia Mendia Cueva (EAJ)

**BIGARREN
LEHENDAKARIORDE
ETA LAN ETA ENPLEGU
SAILBURUA**

- Zailtasun handiak dituzten langabeen laneratzea sustatzea eta enplegurako sarbidea hobetzea.
- Itun sozial eta politiko bat bultzatzea, ordutegiak arrazionalizatzeko eta enpresa-kultura berri bat abiarazteko, laneko eta familiako bizitza bateratzea ahalbidetuko duena.
- Soldata-arrakalaren aurkako txoke-plana.
- Ekintzailetzako erakundearteko plan berri bat onestea, foru aldundiekin, udalekin eta ekintzailetzaren euskal ekosistemako eragilerik garrantzitsuenekin elkarlanean.
- Hiruko gizarte-elkarrizketa eta etengabeko negoziazioa sustatzea eragile ekonomikoen eta gizarte-eragileen artean, eta hala, lan-harremanen euskal sistema eta Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren lantaldeak indartzea.



Bingen Zupiria Gorostidi (EAJ)

HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURU ETA JAURLARITZAREN BOZERAMAILEA

Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen 1961 ean.

2016ko sail bereko burua izango da oraingoan ere.

Filosofia eta Letretan lizentziatu zen Deustuko unibertsitatean, eta Euskal Filologian espezializatu.

Enpresa Korporatiboen Zuzendaritzan MBA dauka.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariitzako Prentsa eta Komunikazio zuzendaria izan zen Ardanzaren garaian (1989-1999).

EITBko eta Deia egunkariko zuzendaria ere izan zen.

ESKUMENAK

- Hizkuntza-politika.
- Euskararen sustapena.
- Kultur ondasuna.
- Ondare Historiko Artistikoa kudeatzea eta babestea.
- Kirola.
- Gizarte hedabideak.

EKIMENAK

- Euskadin kultur sorkuntza eta ekoizpena sustatzea, euskal sortzaileak babestuz.
- Erakunde publikoekiko elkarriketa-bideak berrituratzea eta hobetzea, hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Kontseiluaren, Kultura Auzolanearn ikuspegiaren eta Hakoba Kulturaren bidez.
- Kultur eta sormen industrien aldeko apustua indartzea. Basque District of Culture and Creativity (BDC2) tresna finkatzea.
- Beharrezko erreformak burutzea, EiTb benetako zerbitzu publikoa izan dadin.
- Euskararen ezagutza areagotzeko lan egitea, eta, batez ere, erabileraren garrantzia azpimarratzea.
- Administrazio publikoetan Euskara Normalizatzeko VII. Plana (2022-2026) diseinatu eta ezartzea. Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretua garatu eta ezartzea. Sozietate Publikoentzako Normalizazio-plana abiaraztea.
- Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea.
- Sektorearen erronkei eta premiei erantzungo dien jarduera fisikoaren eta kirolaren lege berri bat onestea.



Arantxa Tapia Otaegi (EAJ)

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENeko SAILBURUA

Astigarragan jaio zen (Gipuzkoa),
1963an.

Iñigo Urkulluren gobernukidea
da 2012tik; geroztik, beti egon da
Ekonomiaren Garapen Sailaren
kargura.

Industria-ingeniaritzako doktorea,
Nafarroako Unibertsitatean.

Politikan sartu aurretik, 2005era
arte, unibertsitatearen esparruan
egin zuen lan.

Foru-diputatu eta Kongresuko
diputatua izan da.

ESKUMENAK

- Industria-politika eta enpresa-lehiakortasuna.
- Berrikuntza eta teknologia.
- Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatu eta garatzea.
- Industria- eta enpresa-nazioartekotzea.
- Eraldaketa digitala eta adimen artifizialaren garapena.
- Energia eta meategiak.
- Landa-garapena eta dibertsifikazio ekonomikoa. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren antolamendua.
- Abeltzaintza, ehiza, arrantza eta horien industriak.
- Nekazaritzako elikagaien politika.
- Energia-trantsizioa. Ingurumena eta klima-aldaketaren aurkako borroka.
- Ekonomia zirkularra.
- Baliabide naturalak antolatzea eta natura kontserbatzea.

EKIMENAK

- Industria eta zerbitzu aurreratuak BPGaren % 40ra heltzea. Horretarako, industria aurreratuaren alde egiten duen eta Euskadin errotuta dagoen Garapen Industrialerako Plan Estrategiko bat onetsiko da.
- Proiektu industrial estrategikoen garapena indartzea, Euskadin jarduera industrial mantentzeko eta errotzeko eta enpresa-proiektu berriak erakartzeko.
- Euskadiko enpresak Europako balio-kate eta ekosistema industrialetan integratzea erraztea, bereziki, Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren lehentasunezko eremuetan: fabrikazio aurreratu, energia eta biozientziak/osasuna.
- Finkatuz Funtza, euskal traktzio-enpresen errotzea eta gure ekonomiarengan duten dinamizazio-efektua bermatzeko.
- ETEak babesteko berariazko programa, horien lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin: berrikuntza teknologikoa eta digitalizazioa txertatzea eta berrikuntza ez-teknologikoa indartzea, negozio-, antolakuntza- eta marketin-eredu berrien bitartez.
- "Basque Green Deal" klimaren aldeko akordio sozial zabala lortzea, Euskadi gasen emisioan herrialde neutroa izan dadin.

Arantxa Tapia Otaegi (EAJ)

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUA

- Makinen Renove Planak indartzea, ETEak robotikara eta digitalizaziora azkar egokitzea errazteko. Era berean, Langileen trebakuntza, prestakuntza eta birziklapenerako neurriak sustatzea, berotegi-efektuko 2050eko aro digital berrira orientatuta.
- Estrategia komun baten barruko eskualde-planak 2030eko horizontearekin, bost jarduketa-ardatz hauen inguruan: ekonomia suspertzea; enplegua sortzea; enplegurako prestakuntza; gizarte-kohesioa; hiri- eta ingurumen-berroneratzea.
- Enpresa Nazioartekotzeko 2025 Plana. Garapen jasangarriko printzipioak sartuko dira nazioartekotzerako laguntzak ematean kontuan hartu beharreko funtsezko irizpideen artean.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategikoa –PCTI Euskadi 2030–, administrazioen, enpresen, klusterren, unibertsitateen eta eragile zientifiko eta teknologikoen parte-hartzearekin; hala, plana Europarekin lerrokatuta egongo da eta Euskadiren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiten lagunduko du.
- Espezializazio adimenduneko estrategian sakontzea; horrek lehentasunez egingo die aurre trantsizio teknologikoari eta digitalari, energia- eta ingurumen trantsizioari eta osasun- zein gizarte-trantsizioari.
- Dibertsifikazio ekonomikoa eta teknologikoa planteatzea, Euskadik suspertzen ari diren gaitasunak dituen lau abagune-arlo hauek indartuz: elikadura osasungarria; ekoberrikuntza; hiri jasangarriak eta kultura eta sormen industriak.
- I+G+bren orientazioa indartzea Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatutako gizarte-erronka handien ebazpena: kalitatezko enplegua; osasuna; klima-aldaketa; digitalizazioa eta genero-berdintasunaren zeharkako erronka.
- EAEko Administrazioaren Digitalizazio Estrategia. Horren barruan sartuko da Adimen Artifizialeko Estrategia, Administrazioaren berrikuntza-konpromisoak bateratzeko.
- Basque Research and Technology Alliance (BRTA), euskal eskaintza teknologikoaren tresna integratzaile gisa eta Europan eta munduan Euskadiren ikertzeko gaitasuna proiektatzeko helburuarekin.
- Energia-eraginkortasuna handitzea autokontsumoa eta banatutako ekoizpena sustatuz.
- Iturri berriztagarrien erabilera areagotzea energiaren azken kontsumoan.
- Bidezko trantsizio energetikoko plan estrategikoa bat onestea, pertsonarik ahulenen gizarte-babesa sustatzeko eta energia-pobretasuneko egoerak saihesteko.
- Irmoki egitea aurrera karbonoan baxua den ekonomia baterantz, enplegua sortzeko eta garapen industrial zein teknologikorako abagune gisa, eta, hala, klima-aldaketa zeharkako politika gisa txertatzea EAEko administrazioen gainerako politika sektorialetan.
- Klima Aldaketaren Legea onestea.
- Abian jartzea Ingurumenaren V. Esparru Programa 2030.
- Erabat hedatzea aurreko legealdian onetsitako Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoaren Legea.
- Ingurumen Administrazioaren Legea onestea, industria eta bere emisioak hobetzeko funtsezko tresna gisa.
- Ondare Naturalaren Kontserbazioari buruzko Legea onestea, Euskadiko ondare naturalaren babesa, kontserbazioa, kudeaketa, erabilera jasangarria, lehengoratzeta eta hobekuntza bermatze aldera.

Arantxa Tapia Otaegi (EAJ)

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENeko SAILBURUA

- Lurzorua Babesteko Euskal Estrategia onestea.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia hedatzea. Ekonomia zirkularreko berrikuntza-zentro bat abian jartzea, baita ekonomia zirkularren prestakuntza-programa bat ere, unibertsitatearekin eta lanbide-heziketako zentroekin elkarlanean.
- Sektorre industrialari bereziki zuzendutako berriarazko plan bat abiaraztea materialen eraginkortasuna % 30 handitzeko, zehazki, ekoizpen-eredu berriak hobetuz eta garatuz eta produktu industrialen ekodiseinua indartuz.
- Hondakinen estrategia bat sustatzea. Arriskutsuak ez diren hondakin industrialen gaikako bilketarako, karakterizaziorako, biltegiratzerako eta balorizaziorako kudeaketa publikoko zentro bat (Europar erreferentziatzeko izango dena) abian jartzea sustatuko da.
- Elikagaiak xahutzearen aurkako ekimenak garatuko dira, elikadura-hondakinak % 30 murrizteko xedearekin.
- Udalekin elkarlanean, erosketa publiko berdea bultzatzea eta tratamendurik gabeko lehen mailako hiri-hondakinen isurketak deuseztatze bidean aurrera egitea.
- Euskadi Europako hegoaldeko bioekonomiaren erreferente gisa kokatzea, baita nekazaritza ekologikoaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren eredu gisa ere.
- Euskadiko Bioekonomiako Estrategia Europarraren aplikatzea. Horretarako, Bioekonomiako Euskal Estrategia garatu, eta Bioekonomiarako Euskal Aliantza bat bultzatuko da, Bioeskualdeen Europako Sarearen lider izateko xedearekin.
- Landa Ingurunearen Garapenerako Legea. Plangintza parte-hartzaileko tresnak sustatzea, landa- eta kostalde-guneetan garapen-eragileen sarea eta tokiko ekintza-taldeak indartuz.
- Nekazaritza-politika komunaren (PAC) Euskadiko Plan Estrategikoa eta Landa Garapenerako Plana, ingurumenarekiko errespetua duen XXI. mendeko nekazaritza jasangarri eta berritzailea baterantz aurrera egiteko xedearekin.
- Euskadiko Itsas eta Arrantza Funts Europarraren (FEMP 2021-2027) Programa Operatiboa onestea, sektorearen lehiakortasunaren eta baliabideen jasangarritasunaren printzipioen arabera. Berezko Arrantza Erakunde Ordaintzaile baten sorkuntza sustatzea.
- Estatuko Gobernuarekin elkarlanean, euskal presentzia indartzea arrantzarekin lotutako nazioarteko akordioetan.



Pedro Azpiazu Uriarte (EAJ)

EKONOMIA ETA OGASUNEN SAILBURUA

Bilbon jaio zen, 1957an.

Ekonomia eta Ogasun Sailean dihardu 2016tik.

Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen, eta, egun, funtzionario eszedentziaduna da.

Diputatuen Kongresuan egon zen 2000tik 2016ra, eta, ordura arte, hainbat kargu izan zituen Eusko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Foru Aldundian (ekonomiaren eta finantzen arloko zuzendari nagusi), bigarren postuan.

ESKUMENAK

- Autonomia-erkidegoko Aurrekontu Orokorren kudeaketa orokorra eta kontrola egitea.
- Sektore publikoko aurrekontuen egonkortasuna eta sektore publikoaren jasangarritasuna.
- Barneko ekonomia-kontrola.
- Laguntza eta dirulaguntza publikoak arautzea eta gainbegiratzea.
- Finantza-politika eta kredituaren antolamendua.
- Aurrezki-kutxak, banku-fundazioak eta kreditu-kooperatibak.
- Diru-bilketaren kudeaketa, diruzaintza eta zorpetzea.
- Ekonomia Ituna.
- Finantza-jarduketa beste Administrazio Publiko batzuekin koordinatzea.
- Politika ekonomikoa eta politika publikoen ebaluazioa.
- Europako berreskuratze- eta erresilientzia-funtsen plangintza.
- Aurreikuspen ekonomiko eta estatistikoaren inguruko azterlan eta ikerketak.

EKIMENAK

- Aurrekontuak prestatzea eta kudeatzea.
- Europako berreskuratze- eta erresilientzia-funtsen plangintza.
- Politika fiskala berrikustea. Zerga-sistema progresiboago eta bidezkoago bat, enplegua sortzen duen ekonomia babestuko duena, zerbitzu publikoak indartuko dituen eta Europako bateratasun eta progresibitate fiskalera joko duena.
- Zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko plan integral berria, foru-aldundiekin elkarlanean.
- Inbertsio publikoa maila guztietan bermatzea, baliabideen berrantolaketaren bidez, administrazioen arteko bikoiztasunak saihesteko.

Pedro Azpiazu Uriarte

(EAJ)

**EKONOMIA ETA
OGASUNEKO SAILBURUA**

- Foru-aldundiekin elkarlanean eta Zerga Koordinaziorako Organoaren bidez, zerga-pizgarriak sustatzea sektore industrialaren, merkataritzaren eta zerbitzuen energia-eraginkortasuneko inbertsiorako.
- Zorpetze-politika zorrotza aplikatzea.
- Politika Publikoen Ebaluazio Unitatea bultzatzea.
- Banku Fundazioen eta Aurrezki Kutxen Legea onestea.



Gotzone Sagardui Goikoetxea (EAJ)

OSASUNeko SAILBURUA

Bilbon jaio zen, 1966an.

Bilboko Udaleko zinegotzia (2018) eta Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkidea (2016-2020).

Eusko Jaurlaritzako Lan Aktibaziorako zuzendaria (2012-2016).

Medikuntzan lizentziatua.

Unibertsitate Kudeaketako Nazioarteko Masterra eta Laneko Arriskuen Prebentzioko Goi-mailako Teknikari Masterra.

ESKUMENAK

- Osasun-plangintza eta -antolamendua.
- Osasun publikoa eta elikadura-higienea.
- Zaintza epidemiologikoa.
- Farmazia-antolamendua.
- Adikzioak eta droga-mendekotasuna.

INICIATIVAS

- Osasun publikoko lege bat onestea, Osasun Publikoko Estrategia berria garatuko duena, osasunarentzako mehatxu berrien arabera.
- Gobernantza soziosanitarioaren dekretua, gizarte- eta osasun-politika sailen artekoa; dekretuaren barruan, lehen mailako arreta soziosanitarioaren garapena izango da ardatza.
- Osasun-ikerketako plan estrategiko berri bat onestea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategikoaren eta Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren esparruan.
- Osasun-ikertzaileen estatutu berri bat sustatzea.
- Osasun-ikerketako sistemarekin elkarlanean, kluster biosanitarioa sustatzea eta osasun-ekipamenduekin eta -zerbitzuekin lotutako euskal enpresa-egituraren garapena bultzatzea, osasun-sistemaren premiei erantzun hobea emateko eta osasun-material estrategikoaren produkzioa bermatzeko, baita osasun-materialaren erreserba estrategikoko stocka zehazteko ere.
- Osakidetzako langileak berritzea eta horien kopurua zein egonkortasuna handitzea, 2020-2024 aldian 4.000 plaza deituz enplegu-eskaintza publikoetan; horiei Eusko Legebiltzarrak onetsitako eta proposatutako hautespen-neurriak aplikatuko zaizkie.
- Osasunaren Behatokia abian jartzea, herritarren osasunari buruzko informazio guztia jardunbide klinikora gehitzea ahalbidetzen duena.



Olatz Garamendi Landa

(EAJ)

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA

Ean jaio zen (Bizkaia), 1968an.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuordea izan da azken bi legealdietan.

Zuzenbidean lizentziatu zen, Deustuko Unibertsitatean.

Funtzionarioa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, zuzenbidean lizentziatuen goi-mailako kidegoan, hain zuzen.

ESKUMENAK

- Legebiltzarrarekiko, Arartekoarekiko eta erakundearteko harremanak eta komunikazioak.
- Autonomia-erkidegoaren garapenerako politika eta, xede horretarako, sailen jarduerak koordinatzea.
- Jaurlaritzaren Idazkaritza eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- Enplegu publikoa eta administrazioaren antolamendua.
- Administrazioa modernizatzea eta erreformatzea, baita administrazio digitala eta gobernu elektronikoa eta gardentasun-politika ere. Irekia plataformaren kudeaketa.
- Autonomia Estatutuaren defentsa juridikoa.
- Eusko Jaurlaritza eta haren organoak judizioetan ordezkatu eta defendatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibil eta Berezia.
- Euskal Administrazio Publikoen antolaketa- eta prozedura-araubidea, eta euskal gobernantza publikoa aplikatzeko eredia diseinatzea politika publikoak zehaztu eta gauzatzean.
- Elkartea, Fundazio eta Elkargo profesionalak.
- Informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboak.

EKIMENAK

- Administrazio hurbil, sinple eta eraginkorragoa, bikoiztasunak saihesten dituen. Herritarrei arreta emateko leihatila bakarra ezartzea, eta administrazio-prozedurak gutxienez %20 sinplifikatzea.
- Sektore Publikoko Legea onestea.
- Enplegu Publikoko Legea onestea.
- Administrazio digitalago baterantz aurrera egitea; horretarako, "Gobernu Digitala" euskal estrategia abiaraziko da.
- Herritarren Parte-hartzerako eta Gardentasunerako Legea onestea. Gizartearen kontu-ikuskaritza eta hiritarren ahalduntzea sustatzea. Open Data eta Open Government estrategia indartzea.
- Plangintza estrategikoa garatzea herrialde-erronka handiei eta hiru trantsizio globalei aurre egiteko: energia-ingurumen trantsizioa; trantsizio teknologiko-digitala eta trantsizio sanitario-soziala.



Iñaki Arriola López (PSE)

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUA

Eibarren jaio zen (Gipuzkoa),
1959an.

Ingurumen, Lurralde Plangintza
eta Etxebizitzako sailburua
izan zen aurreko legegaldian.
Patxi Lópezen Gobernuak hiru
urteetan, Etxebizitza, Herri Lan eta
Garraioko sailburua izan zen.

Zuzenbidean lizentziaduna da.

Autonomia-erkidegoko eta
probintziako diputatua izan da,
baita Eibarko zinegotzia eta
alkatea ere.

ESKUMENAK

- Lurralde-antolamendua.
- Hiri-agenda, lurzorua eta etxebizitza.
- Arkitektura, eraikuntza, jasangarritasuna eta kalitatea eraikuntzan.
- Irisgarritasunaren sustapena.
- Trenbideak eta lurreko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioa.

EKIMENAK

- Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea, Etxebizitza Legean zehazten den prestazio ekonomikoa garatuz eta Etxebizitza Plan Zuzentzaile berria sustatuz.
- Euskadiko Epe Luzerako Birgaitzeko Estrategia lantzea, arreta berezia jarritz alderdi hauetan: energia-eraginkortasuna, osasuna bermatzeko baldintzak, erosotasuna edo pobrezia energetikoaren arriskuaren deuseztapena. Birgaitzea, hiri-berroneratzea eta etxebizitzak berritzea, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna eta eraikuntza jasangarria lortzeko.
- Joan den legegaldian onetsitako Euskadi Bultzatu 2050 Hiri Agenda garatzea (Europako Hiri Agendarekin eta NBERen Habitat III Hiri Agenda Berriarekin lerrotatua - Arauen eta legeen bitartez garatzea, jasangarritasun-paradigma berrietara egokitzeko).
- Mugikortasun Jasangarriaren Legea. Garraio-sistema integratua lortzea, klima-aldaketaren aurka borrokatzen eta gizartean eta ingurumenean eragiten dituen kalteei aurre egiten laguntzen duena.
- 2021-2025 Mugikortasun Jasangarriko Plana onestea, Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Plan Zuzentzailean integratuta egongo dena. Mugikortasun jasangarriko eredu berri baten eta berotegi-efektuko gasen emisioetan baxua den garraio baten aldeko apustua indartzea. Horretarako, ibilgailu elektrikoa sustatuko da, ibilgailu elektrikoentzako kargaguneen eta zerga-pizgarrien bidez.
- Integratutako garraio publiko kolektiboa eta horren intermodalitatea sustatzea tarifa-integrazioarekin eta txartel bakarrarekin, tokiko eskalan Hiri-mugikortasun Jasangarriko Planen garapena sustatuz eta garraio publikoaren erabilera intentsiborako hobariak emanez.

Iñaki Arriola López (PSE)

**LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA
GARRAIOETAKO
SAILBURUA**

- “European transport networks, TEN-t”
salgaien korridore atlantikoa garatzea. Bilbo
hegoaldeko trenbide-saihesbidea eta Bilboko
Portuarekiko trenbide-konexioa eraikitzea.
Lille-Vitoria-Gasteiz tren-autobidearen
garapena sustatuko da; horretarako, Jundizko
plataforma multimodala amaituko da. Lezoko
plataforma logistikoa eta plataformaren eta
trenbide-sarearen arteko konexioa garatuko dira,
Pasaiaiko Portuaren eraginkortasuna hobetzeko.
- Trenbide-inbertsioak lehenestea.
Pertsonen eta salgaien tren-garraioa Euskadiko
mugikortasun jasangarriaren ardatzetako bat
bilakatzea. Besteak beste, “Euskal Y” amaitzea,
Irun, Donostia, Ezkio, Bilbo eta Gasteizko
geltokien eraikuntzarekin.



Jokin Bildarratz Sorron (EAJ)

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Tolosan jaio zen (Gipuzkoa),
1963an.

Senatutik igaro ondoren
(2001-2004 eta 2013-2020),
Hezkuntzako sailburu da egun.

Tolosako alkatea izan zen (2003-
2011).

Irakasle-ikasketak egin zituen, eta
Zientzia Politiko eta Soziologian
lizentziatua da.

Urteetan irakaskuntzan aritu
ondoren, EiTBn egin zuen lan
kazetari gisa.

ESKUMENAK

- Irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, araubide orokorrekoak zein araubide berezikoak.
- Lanbide-heziketaren arloko zuzendaritza, antolamendua eta plangintza, Laneko Sailarekin elkarlanean.
- Politika zientifikoa. Ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatzea.

INICIATIVAS

- Talde eta eragileen arteko akordioa sustatzea eta Euskal Hezkuntzaren Legea onestea.
- Aurrera egitea 0 eta 2 urte bitarteko haurren eskolatze goiztiarrean, 2 urteko haurren ia % 100 eskolaratuta egotea lortu arte, eta, gainera, 2 urtetik beherako haurren eskaera guztiari erantzutea.
- Gizarte-kohesioa sustatzea dibertsitatearen eta kulturartekotasunaren aurrean, atzerriko ikasleen ehuneko altua duten ingurune baztertuetako zentroak lehenetsiz.
- Zentro publikoen autonomian sakontzea, ikasleen, horien familien eta ingurunearen ezaugarrietara egokitutako berezko proiektuak ahalbidetzeko helburuarekin.
- Zentro publikoetako zuzendaritzan lidergo pedagogikoa indartzea, zuzendaritza-eginkizunaren prestakuntzaren eta profesionalizazioaren bidez, zuzendaritzaren lan burokratikoetatik eta administrazio-lanetatik deskargatuz.
- Zentroen sareak sustatzea, lidergo-esperientzia positiboak partekatzeko eta hezkuntza-proiektuan oinarritutako hezkuntza-zentroaren eta administrazioaren arteko erantzunkidetasun-akordioak ezartzeko.
- Irakasleen rola eta protagonismoa indartzea, horiek direlako hezkuntza-sistema osoaren eraldaketarako eragile nagusiak.
- Gizarte- eta osasun-erronka berriei erantzungo dien eta Espezializazio Adimenduneko Euskadi Estrategiarekin bat datorren lanbide-heziketa sustatzea.

Jokin Bildarratz Sorrón (EAJ)

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

- Enpresa-egiturarekin batera, Etorkizuneko Ikaskuntzen Behatokia abian jartzea, eta lanbide-heziketako zentroak apurka-apurka berrikuntza eta aldaketa kudeatzeko gai izango diren erakunde adimendunak bihurtzea.
- Zientziaren eta unibertsitatearen aldeko itun bat lortzea.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berria sustatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren bidez.
- 4Gune kluster berriaren lana indartzea, eta unibertsitate-kluster berri bat abiaraztea kultura- eta sormen-industrien eremuan.



Beatriz Artolazabal (EAJ)

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA

Gasteizen jaio zen, 1970ean.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua izan zen XI. legealdian.

Gasteizko Udaleko zinegotzia izan da, baita Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatua ere.

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da.

Gasteizko Santiago Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria izan da.

ESKUMENAK

- Generoaren aukera-berdintasunerako politika.
- Genero-indarkeriaren biktimen arreta zuzendu eta koordinatzea.
- Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan duen politika eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa izateko politikak diseinatzea eta gauzatzea.
- Botere Judizialarekiko harremanak.
- Justizia Administrazioaren jardunerako baliabideak jartzea.
- Espetxe-establezimenduen antolamendua eta funtzionamendua.
- Giza eskubideak eta bizikidetza gauzatzeko baldintzak sustatzea.
- Biktimen eta memoriaren politikak zuzendu eta koordinatzea, eta Gobernuak memoria historiko eta demokratikoaren arloan duen politika proposatzea eta gauzatzea.
- Familia babestea eta lan-bizitza nahiz familiako bizitza babestea.
- Zahartzea eta erronka demografikoa. Komunitate-garapena eta gizarte-ongizatea.
- Garapenerako lankidetza.

EKIMENAK

- Gizarte-zerbitzuen euskal sistema garatzea erkidego-ikuspegia kontuan hartuz eta printzipio hauetan oinarrituz: kalitatea, berrikuntza, zaintzen oreka berria eta eraginkortasuna.
- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egitea.
- Gizarte-zerbitzuen berrikuntza eta ebaluazioa eta kalitatea sustatzea, emaitza-irizpideekin eta erabilgarritasun publikoko irizpideekin.
- Estrategia integral bat abiaraztea, babes egonkorak behar dituzten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako arreta bermatzeko, zehazki, gizarteratzearen eta esku-hartzearen eremutik.

Beatriz Artolazabal (EAJ)

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA

- Haur-bermeko programa bat sustatzea, haur-pobretasunaren aurkako estrategia globalaren funtsezko elementu gisa.
- Gizarteratzeko V. Euskal Plana onestea, 2022-2025 aldirako .
- Zahartze aktiborako euskal estrategia sustatzea, zahartze aktiborako indize europarrarekin lerrokatuz – "Silver economy" edo zilarrezko ekonomia bultzatzea.
- Nahi gabeko bakardadearen aurka borrokatzeko erakunde arteko plan bat sustatzea.
- Zaintzaileak laguntzeko euskal estrategia abian jartzea - Zaintzaileen Estatutua onartzea.
- Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala garatzea.
- Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Euskal Legea onestea.
- Herritarren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Eremuan Jarduteko VI. Plana onestea.
- Errefuxiatu eta nazioarteko babes-eskatzailen harrera eta integrazioarako politikak bereganatzea.
- Gazteriaren Euskal Legea onestea.
- Soldata-arrailearen aurkako talka-plana.
- Berdintasunaren Legea onestea.
- Dibertsitate-berdintasunerako eta sexu-orientazioaren ondoriozko bereizkeriaren aurkako borrokarako lege integral bat onestea.
- Sistema judizial modernoa bultzatzea.
- Justiziaren Plan Estrategikoa onestea, pertsonetan ardazten den justizia arinagoa, eraginkorragoa eta digitalizatua eraikitzeko parametroak ezarriko dituen.
- Justizia Digitaleko Plan berria onestea.
- Jarduera judiziala berraktibatze jarduketa-plan bat ezartzea, COVID19aren ondorioei aurre egiteko.
- Arreta berezia ematea indarkeria matxistaren biktimei, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Biktimen Plana garatuz.
- Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Aurrean Jarduteko Plana garatzea, erakunde arteko koordinazioa indartzeko, emakumeen aurkako indarkeriako epaitegi-taldeen langileen prestakuntza hobetzeko eta biktimei informazioa, arreta eta laguntza emateko zerbitzu integralak indartzeko eta instalazioak egokitzeko.
- Gazte Justiziaren V. Plana onestea eta ezartzea.
- Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartzea.
- Botere-abusuen ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legea garatzea.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legea onestea. Garapenerako politiken koherentzia erreala lortzeko bultzada irmoa.



Javier Hurtado Domínguez (PSE)

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

Madriilen jaio zen, 1981ean.

Sailburu izan aurretik, Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko foru-diputatua izan zen Arabako Foru Aldundian.

Zuzenbideko eta Politika eta Administrazio Zientzietako lizentziaduna da.

PSO Eren Batzorde Exekutibo Federalaren Antolakuntza Idazkaritzaren koordinatzailea izan zen (2007-2009 eta 2012).

Sustapen Ministerioaren kabineteko kidea ere izan zen (2009-2011).

Ha ejercido la abogacía entre Abokatu gisa aritu zen 2013-2016 bitartean.

ESKUMENAK

- Turismoa eta merkataritza.
- Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak.
- Kontsumoa.
- Prezio-politika.

EKIMENAK

- Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia berria onestea, "Euskadi Basque Country" marka sustatzeko eta, horren bidez, Euskadi norako turistiko segurua, jasangarria eta arduratsua dela erakusteko. Genero-berdintasuna bultzatuko da sektorean, zehazki, Turismo Enpresetako Berdintasun Plana garatuz.
- Transformazio digitalera egokitzeko plana.
- 2024rako merkataritza- eta ostalaritza-plana.
- Merkataritzako erakunde arteko mahai bat sortzea Eudelen parte-hartzearekin; bertan, merkataritzaren eta ostalaritzaren jarduera bultzatzeko estrategiak eta planak erabakiko dira, erakunde desberdinen jarduketa koordinatuz. Jarduketa bateratuak.
- Euskal Ganberen Legea eta Merkataritza Jardueraren Legea onestea.
- Kontsumobide egokitzea kontsumo- eta ordainketa-modu berrietara.
- Kontsumitzaileen Babeserako Legea onestea.
- Kontsumo etikoa eta arduratsua eta arbitrajeko borondatezko sistemarako atxikipena txertatzea laguntza, diru-laguntza, sari eta enpresa-babeseko beste edozein modalitate emateko irizpideetan.

AGENDA PUBLIKO BERRIAREN TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZAREN
ERRONKEN ANALISIA

2020KO URRIA

SILVÁN & MIRACLE

GAI PUBLIKOEN ESTRATEGIAK —

www.silvanmiracle.com | info@silvanmiracle.com